



Ikastolako kirol  
pista bat estali  
gingo da

/3. orrialdea

Muskizek  
ondare  
historikoa  
zaintzen du

/2. orrialdea

Segurtasuna  
hobetu da Ortze  
inguruan

/4. orrialdea

Erkidego  
adiskidetsua  
adinekoekin

/5. orrialdea

Gazte  
ekintzaileak

/6. orrialdea

## Editoriala

### **Ibai-pasealekua eta batxilergoa MUSKIZ BHI zentroan, betetako konpromiso berriak**

Aurtengo uztailean, muskiztarrek zein bisitariak aukera izango dute Muskiz eta El Pobal burdinola lotzen dituen bide naturalaz gozatzeko hasteko. Muskizko auzoak lotuko ditu 4 kilometro hartzen dituen ibilbideak, Barbadun ibaiaren bitartez. Sortzez Garbiaren zubiaren azpitik igaroko da bidea, Mayor ibaiaren ibilgutik ahalik eta hurbilen, eta Burdinolarantz jarraituko du. Ibaiaren alde batetik bestera igaro ahal izateko, egurrezko hainbat pasabide egin dira, era honetako gune naturalari egokituak, eta, horiei esker, Nesilla, El Pobal, Bilotxi eta Santelices auzoetako herritarrek segurtasun osoz joan ahalko dute, oinez, udalerrriaren erdiguneraino. Gobernu taldeak, halaber, 12 kilometro inguruko ibai-pasealeku baten bitartez Kobaron eta El Pobal auzoak lotzeko proposatutako konpromisoa bete ahalko du lan honekin. Kostaldean abiatzen da bidea, eta Muskiz eta Galdames udalerrien arteko mugan amaitzen da. Horrez gainera, aisiarako eremu berri bat ere sortu da.

Beste alde batetik, urrats handiak egin ari dira institutu berria eraikitzeko, eta, bide horretatik, IES MUSKIZ BHIK batxilergoa estreinatuko du 2018/2019 ikasturtean, Hezkuntza Sailak esleitu baitu dagoeneko institutu berriaren eraikuntza proiektuaren erredakzioa. Elkarrekin jardun dugu IDEek, IES MUSKIZ BHIko zuzendaritzak, Cantarranako zuzendaritzak eta Udalak, eta norabide berean aritu gara, gainera, helburu hau lortzeko asmoz. Aspalditik ari dira Muskizko gurasoak institutu publiko bat eskatzen, beren seme-alabek udalerrian bertan egin dezaten batxilergoa, eta, azkenik, eskaera hori egia bihurtuko da datorren ikasturtean.

Eskerrik asko guztioi, eman diguzuen babesagatik eta gudan izan duzuen konfiantzagatik.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea

## **Muskizko Udaltzaingoak bi ibilgailu berri ditu**

Muskizko Udaleko Herritarren Segurtasun Saila lanean ari da Udaltzaingoa herritarrei hurbilazteko helburuarekin. Ekimen horren bitartez, udaltzainak udalerrian barrena errazago mugitzea bilatzen du, funtsean, Udalak, bereziki istripu, abisu, larrialdi edo halakoren bat gertatuz gero. Horregatik, bi ibilgailu berri erosi dira: batetik, motor bat, bakarka dabilzan udaltzaintzat, eta automobil bat, txandaka lan egiten duten udaltzainak herritik hobeto mugitu ahal izateko.

Azken urteotan, hainbat ekimen jarri dira abian, besteak beste, polizia etxea erdigunetik atera da, udaltzainetako bat, borondatez, lanaldi zatituan lan egitera igaro da, ikaste-txeetan eta herriko kale nahiz parkeetan presentzia handiagoa eduki ahal izateko.



## **Udalerriko ondare historikoa zaintzen du Muskizek**

Muskizko Udalak, udalerriko ondare historikoa eta kulturala zaintzeko politikaren barruan, hainbat lan eta ekimen gauzatu ditu azken urteotan, udalerriko oroitzapenak bizirik gordetzeko eta turismoa sustatzeko helburuarekin. Lan horien artean aipagarrienetako bat arropa garbitzeko harraska zaharrak berreskuratzea izan da, zehazki El Haya, Villanueva, Pobeña eta, azkenik, Muskeko San Julian auzoetan zaharberitu dira harraskak. Horrez gainera, hainbat lan egin dira, besteak beste, Muñatonos gazteluan eta El Pobal burdinolan.

Eraberritutako azken harraska Muskeko San Julianekoa izan da, 45.000 euroko aurrekontuarekin. Udalak gune publiko bat lehengoratu du, gogora ekarri besterik gabe batean emakumeen topagune gisa betetzen zuen funtzioa.

Ekintza horren bitartez, Udalak lanean jarraitzen du ondare historikoari garrantzia emateko eta babesteko asmoz hasi zuen politikaren ildotik; Pobeñako harraska lehengoratzeko lanarekin hasi zuen, hain zuzen, asmo hura. San Julian auzoko harraska lehengoratzeko lanen bitartez, lurra egokitu egin da, harri-hormak berreskuratu egin dira, eta argi eta hornikuntza sare berria jarri da.

Beste alde batetik, Udalak hainbat jarduerak egin ditu El Pobaleko burdinolarekin elkarlanean, hala nola, jarduerak edo bisitak antolatu ditu bai burdinolara bai Muñatonos gaztelura, ondare kulturala babesteko eta zaintzeko balioak bultzatzeko asmoz. Jarduera horien bitartez, 18.000 lagun inguru bertaratu dira 2017. urtean zehar kultur esparru horietara.



## *Eskola- laguntza, hezkuntza- prozesua bermatzeko*

# *Ikastolaren eremu estali berria aisialdirako gune gisa erabili ahalko dute muskiztarrek*

**M**uskizko Udalak, Ikastolaren eskaerei erantzunez, ikastetxe-ko kirol pistetako bat estaltzeko lanak egingo ditu 2018ko udako hilabeteetan. 315.000 euroko kostua izango dute lan horiek, guztira. Neurri horren bitartez, ikasleek jolaserako, aisialdirako eta hainbat jardueretarako eremu bat edukiko dute, eguraldi txarretik babestuta.

Udalari egokia iruditu zaio pista hori udalerriko herritar guztiek aisialdirako eremu gisa erabili ahal izatea eskola orduetatik kanpo. Eremu babestu bat, euria edo haizea egiten duenean esate baterako, Udalaren beraren ekimenak egin ahal izateko ere balioko duena, hala nola, azokak, kontzertuak, Gabonetako jarduerak, feriak.

Horregatik, pista estali berriak sarrera berri bat edukiko du oinezkoentzat, jolas parke-rik hurbileneko fatxadari, udalerriko gainerrako herritarrek pista erabili ahal izateko. Proiektu handinahia da, erabilerari bikoitza edukiko duena eta eremu hori mini kiroldegi edo azoka-gune bihurtuko duena, Ikas-

tolako ikasleentzako jolastoki izateaz gainera. Teilatuen egiturak ikastolaren ildo arkitektonikoari jarraituko dio, baina bere argiztapen sistema edukiko du eta lehentasuna emango zaio epe luzeko eraginkortasunari, eraikuntza jasangarria bilatuz. Pistan, 1.325 m<sup>2</sup>-koa, metalezko egitura bat jarriko da, eta horrek eutsiko dio metalezko xafraz egindako sandwich paneleko teilatuari; xafla hori polikarbonato zeharrargia izango da %15ean, eta argia iragaziko duten itxiturak izango ditu, eguzki izpiek ez dezaten pistan zuzenean jo. Udal arduradunek aurreikusitako dutenez, lanak ikasturte hasierarako egongo dira amaituta; era horretara, zarata eta eragozpenen ondorioz, ez da eskolen garapen normala etengo.

### *Inbertsio planaren proiektua*

Teilatuen proiektua Muskizko Udalak diseinatutako inbertsio planaren barruan dago sartuta, herritarren eskaerei erantzuteko jardueretarako sail bat egon dadin osatua izan dena, ahal den neurrian herritarren premiak asetzeko helburuarekin, betiere.

Muskizko Udalak, Gizarte Ekintza Sailak babestuta, iazko ikasturtean, hau da, 2016ko irailtik 2017ko ekainaren 30era bitartean, IKASGUNE izeneko programa osatu zuen. Eskola-heziketa osatzen duten hezkuntza-baliabideen gabezia duten eta, zenbait kasutan, gizartean desabantaila egoeran dauden udalerriko 6 eta 12 urte bitarteko adingabeek (Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara) hezkuntza-prozesu egokia jaso ahal izateko eta, oro har, eskola-laguntza eskaintzeko gunea da zerbitzu hori. Besteak beste, helburu orokor hauek ditu zerbitzuak, ikasleei dagokienez: jarrera eta balio egokiak barnerratzeko esparrua sortzea, maila akademikoa indartzea, euskararen erabilera sustatzea, autoestimua lantzea, familiak gizarte-heziketan inplikatzeko, adingabeek eskolaz duten irudia berregitea, dinamiken bitartez adingabeei aisialdiaz gozatzeko aukera ematea eta gizarteko beste eragile batzuekin elkarrekintzan jardutea.

Programa, 23.000 euroekin, udalerrian erroldatuta dauden Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta talde heterogeneoak sortuko dira. 55 ikasleek parte hartu dute guztira, 37 Cantarranakoak eta 18 ikastolakoak. Familiekin batera egindako ekintzei dagokienez, 46,31 izan dira guztira, 31 Catarranakoak eta 15 ikastolakoak. Horrez gainera, banakako bilerak egin dira ikasturtearen hasieran.



## ***La Rigadako Kultur Etxearen eraberritzea***

Muskizko Udalak 45.000 euroko inbertsioa egin du La Rigadako Kultur Etxea eraberritzeko lanetan. Leiha-teak, ate nagusia eta biltegiko atea aldatu dira, fatxada margotu da eta hainbat konponketa egin dira eraikinarren barrualdean.



## ***Baranda bat jarri da El Cruceroko bihurgunean***

Udalak baranda bat jarri du El Crucerorako jaitsieran dagoen bihurgunean; izan ere, oso arriskutsua da oinezkoentzat, errepidetik oso hurbil dagoelako. Inbertitutako aurrekontua 16.516 euro ingurukoa izan da.



## ***Mantentze-lanak Ikurrinaren parkean***

Muskizko Udalak mantentze-lanak egin ditu Ikurrinaren parkeko hiri-altzarietan. Lan horien bitartez, konpondu eta pintatu egin dira eserlekuak eta barandak. Inbertsioa 2.900 eurokoa izan da guztira.

## ***Muskiztarrek Sopuertako igerilekuak erabili ditzakete udan***

Muskiztarrek Sopuertan erroldatuta dauden herritarren prezio berean erabili ahaliko dituzte Sopuertako kanpoko igerilekuak udako hilabeteetan, hain zuzen ere, ekainaren 15etik irailaren 9ra; diru aldea Muskizko udalak ordainduko du. Aurten, aurreko urteetan bezala, Muskizko Udalak akordio bat izenpetu du auzoko Udalarekin, muskiztarrek Sopuertako instalazioez gozatzeko aukera izan dezaten. Instalazio horietan, helduentzako igerileku bat eta haurrentzako beste bat, eta txikientzako aisialdirako eremuak izango dituzte.

Familia-abonamendua edo banakakoa atera nahi duten muskiztarrek Muskizko udaletxera joan beharko dute, eta, bertan, errolda ziurtagiria emango zaie. Ziurtagiri hori aurkeztu beharko dute igerilekuetan, udako abonamendua ateratzera joaten direnean. Igerilekuetara joan nahi dutenek familia-abonamendua eta banakakoak baino ezingo dituzte atera; egun bakar batean joan nahi dutenek eguneko sarrera ordaindu beharko dute, erroldatuta ez daudenen antzera.

## ***Segurtasuna hobetu da Ortze inguruan***

Muskizko Udalak hobetu egin du Meatzari plazako segurtasuna, zehazki, Ortze inguruan. Horretarako, baranda bat jarri du, eta ezponda bat eta horma txiki bat jarri ditu, galtzadako harriei lotuta. Aurrekontua 4.800 eurokoa izan da guztira. Jende asko ibiltzen da inguru horretan, haurrak batez ere, aparkalekue-tatik eta saltoki batetik hurbil baitago; hori dela eta, Muskizko Udalak beharrezkotzat jo du lan hori, herritarren segurtasunari eta erosotasunari begira. Berritutako eremuan eskailerak zeuden lehendik, bai eta eremu berde txiki bat ere, baina orain porlanez estali da, lokaztu egiten baitzen aldian-aldian.





## Muskiz, erkidego adiskidetsua adinekoekin

**M**uskizko Udalak bat egin du Hiri Adiskidetsua izeneko proiektuarekin, adinekoen zahartze aktiboa sustatzeko xedez. Horretarako, parte-hartzea sustatzen da, eta hobetu egiten dira osasun baldintzak eta handitu egiten da inguruneetako segurtasuna, haien bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin, betiere. Proiektu horren bitartez, herritarrek euren egitura eta zerbitzuak egokitzea lortu nahi da, irisgarriak izan daitezten eta kontuan har ditzaten adinekoen gaitasunak eta premiak. Era horretara, Muskizko Udalak bat egingo du adinekoekin adiskidetsuak izan nahi duten beste udalerrri batzuekin.

Hiri Adiskidetsua proiektua udal baliabideekin finantzatu da, Urgatzi taldearen ekarpenarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzekin. Metodologiari dagokionez, lau etapa aurreikusten dira plana aurrera eramateko. Lehenik, pertsona nagusiak proiektuan inplikatze beharrezkoak diren mekanismoak ezartzen dira, eta pertsona nagusi horiek teknikari profesionalekin, bertako ordezkari politikoekin eta beste eragile batzuekin

batera talde eragilea osatuko dute. Talde horrek modu aktiboan parte hartuko du adiskidetasunaren diagnostikoa, ekintza plana eta etengabeko hobekuntza aurrera eramaten, Muskiz adin guztietarako lurraldea bihurtu dadin. Mekanismoak finkatu ondoren, Udalaren adiskidetasun mailaren diagnostikoa egingo da, eta, horretarako, ekintza plan bat egingo da eta jarraipen adierazleak identifikatuko dira, zahartze aktiboa baldintzatzen duten zortzi eremuetatik lau gutxienez kontuan hartuz. Honako hauek dira zortzi eremu horiek: aire zabalean dauden gunek eta eraikinak, garraioa, etxebizitzak, parte-hartze soziala, errespetua eta gizarte-inklusioa, parte-hartze zibikoa eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta zerbitzu komunitarioak eta osasunaren alorreko zerbitzuak.

Azkenik, ekintza planaren jarraipena, ebaluazioak eta kontrola egingo dira, eta etengabeko hobekuntza jarduerak bideratuko dira. Horrez gainera, nagusien protagonismoa bermatuko da, profesional teknikoekin, ordezkari politikoekin eta udaleko beste eragileekin batera.



## %50 erabiltzaile gehiagori emango die zerbitzua jantoki sozialak

Muskizko Udalak %50 erabiltzaile gehiagori zabalduko die jantoki soziala, gaur egun dagoen itxarote-zerrendari erantzuna emateko helburuarekin. Era horretara, 20 laguni jaten ematek 30 laguni ematera igaroko da. Muskizko Udalak aurreko maiatzean esleitu zuen jantoki sozialaren zerbitzua, 2 urteko eperako, eta gehienez ere 4 urteko epera zabalteko aukerarekin; esleipenaren zenbatekoa, BEZ barne, 178.750 €-koa izan da guztira. Eguneko Zentroko erabiltzaileei, Atsedan Zentrokoei eta adineko pertsoneri oro har, eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden eta elikadurari eta nutrizioari dagokionez gabeziak dituzten herritarrei elikadura eskaintzea da jantoki sozialaren funtzioa. Gizarte-integrazioa sustatzea eta gizarte-arriskuan dauden herritarren oinarriko elikadura-premiak asetzea da, azken batean, jantokiaren helburua.

Oinarriak zehazteko, Muskizko Udalak kontuan hartu ditu lehengaien kalitatea eta janariaren prestakuntza, eta oso aintzat hartu du bertako produktuen babesia. Hori dela eta, Udalak bat egin du NIREA izeneko ekimenarekin. Lehen Sektorea Indartzea eta Landa ingurunea eta Itsasertzeko Ingurunea berpiztea da programa horren helburua, eta Euskadiko lehen sektorea, landa-ingurunea eta itsasertza osatzen duten pertsonak dira bertan protagonista. Ekimen horren bitartez, Landa Inguruneak duen garrantzia eman nahi da ezagutzera, Euskadiren garapen sozial eta ekonomikoari laguntzen dion gizarte-ereduaren oinarri baita.

## Teknologia berria Muskizko Eguneko Zentroan

Muskizko Eguneko Zentroko adinekoek eta erabiltzaileek teknologia berri bat edukiko dute, "El Pacto" musika taldeak orain dela hilabete batzuk emandako laguntzari esker. Taldeak Muskizko Meatzari Aretoan eskainitako emanaldian 800 euro bildu zituen. Zentroko ardura-dunek TDT proiektore bat (wifarekin) erosteko baliatu zuten laguntza hori, bideoak, filmak, etab. emateko, bai eta kamera konpaktu bat ere, Eguneko Zentroko erabiltzaileek erabiltzeko.





## Elkarrizketa



### Gaitasun ekintzailea duten gazteak

IES Muskiz BHI institutu publikoko ikasle talde batek lortu du Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak sustatu eta Ortzadar elkarteak garatzen duen “Egin eta Ekin” programaren lehenengo saria, DBHko 2. Zikloko negozio planen kategorian. “Ecologic Bin” proiektuarekin, DBHko laugarren mailako lau ikaslek lortu dute lehenengo saria, zibismoan eta birziklatzean oinarritutako proiektuaren bitartez. Haiekin hitz egin dugu gazteek erabakiak hartzeko eta zailtasunen aurrean aurrera egiteko gaitasuna ezagutzeko.

#### G/ Zertan oinarritzen zen aurkeztutako proiektu irabazlea?

E/ Botatzen den zaborra pisatzen duen paperontzi edo edukiontzi batean oinarritu da proiektua. Pisatutako zabor horren arabera, txartelak ematen ditu, eta txartel horien truke deskontu txartelak lor daitezke, herriko dendetan erabiltzeko.

#### G/ Nola sortu zen ideia?

E/ Zer proiektu aurkeztu genezakeen

“Birziklatzeko eta herriko merkataritza sustatzeko irtenbide bat bultzatu nahi izan dugu

*pentsatzen hasi ginenean, zalantza asko sortu zitzaizkigun, baina jabetu ginen jendeak zabor asko botatzen duela lurrera, oharkabean edo ohartuta. Horregatik bultzatu nahi izan genuen birziklatzeko alternatiba bat, hain zuzen ere, erosketa txartelak ematen zituen edukiontzi bat, bertara sartutako zaborra pisatu ondoren, eta txartel horiek, gainera, herriko dendetan erabiltzeko izango ziren.*

#### G/ Zer diseinu du paperontziak?

E/ Lau ataleko paperontzi bat da funtsean. Beheko aldean baskula moduko bat du, eta bertan pisatzen da zaborra. Birziklatzen duzun zabor kopuruaren arabera, txartelak ematen dizkizu, eta txartel horiek udalherriko saltokietan erabili ahalko dituzu. Paperontziaren diseinurako dagoeneko erabiltzen diren zaborrontzietan inspiratu gara, baina txikiagoak dira eta zilindro formakoak.

#### G/ Lau ikasle ekintzaileek birziklatzearen garrantzia azpimarratzen dute...

E/ Proiektuaren alderdirik nabarmenena

*birziklatzearen gaia da, jendea gero eta gehiago jabetzen baita zein garrantzizkoa den gure ingurunea eta natura babestea.*

#### G/ “Ecologic Bin” proiektuarekin, birziklatzeaz gainera, Muskizeko dendak sustatzen dituzue...

E/ Herrietako dendak sustatzearen garrantzia azpimarratu nahi genuen, atzera gelditzen ari dela konturatu baikara. Era horretara, jendeak herrian erostea lor dezakegu, saltoki handietara joan beharrean.

#### G/ Lehenengo aldia da IES MUSKIZ BHI ikastetxeak “Egin eta Ekin” programan parte hartzen duela; ba al zenuten irabazteko itxaropenik?

E/ Egia esan, ez. Proiektu interesgarri asko zegoen, gure gelan esaterako, ikasle batzuek kristalak garbitzeko dron bat aurkeztu zuten. Lehenengo aldia izateko, oso pozik gaude, baina ez da lan erraza izan. Proiektu bat eta enpresa bat sortzeko lan handia egin behar dela ikasi dugu, martxan jartzeko ideia bat edukitzea dela batez ere zaila.



### Automobil elektrikoaren lasterketa

Haurrek diseinatutako motor elektrikoaren kotxeen lasterketa bat antolatuta zen lehen aldiz Muskizen, Udal Kiroldegia pistan. Bi modalitate izan ziren, hainbat kategoriatan: Goblin izaneko bat, 9 urtetik 11 urtera bitarteko haurrei zuzendua, eta F-24 deitutako beste bat, 11 urtetik 16 urtera bitarteko haurrentzat. Jarduera horren helburua da haurrek eurek diseinatutako automobil elektrikoekin lehiatzea, batetik, eta, bestetik, lehiaketan beraien diseinuak frogatzeko aukera izatea eta gainerako parte-hartzaileekin jardutea.

### Haurrentzako jarduerak auzoetan

Muskizko Udala hainbat jarduera egiten ari da haurrentzat udalherriko auzoetan, jolas-jardueren bitartez haurren artean ariketa fisikoa sustatzeko asmoz. Muskizko Udaleko Kultura eta Kirol Sailak antolatutako “Jolastaldia” izeneko ekimen honen bitartez, era horretako jarduerak egiten ari dira erdigunean baino jarduera gutxiago antolatuta ohi diren auzoetan. Saioak 17:00etatik 20:00etara izango dira, eta hainbat puzgarri eta jolas jarriko dira. Txikientzat puzgarriak eta tailerrak egongo dira, eta 6 urtetik gorakoentzat, berriz, jolas sofistikatuagoak antolatuko dira, hala nola, demolition ball, futbolin erraldoia, rokodromoa...